

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2015/2016 ikasturtea

MAISU MAISTREN FORMAKUNTZA GENERO BERDINTASUNEAN

Egilea: Irati Diaz Alonso

Zuzendaria: Begoña Bilbao Bilbao

Leioan, 2016ko maiatzaren 30ean.

AURKIBIDEA

0. Sarrera	3
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera	4
1.1 Ikasleen curriculum azterketa	4
1.2 Maisu maistren curriculum azterketa	6
1.3 UPV/EHU-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. eta II. planak . 7	
1.3.1 Genero ikuspegiaren txertaketa irakaskuntzan	8
1.4 Maisu maistren formakuntzaren gaineko ikerketa batzuk	10
1.5 Generoan hezitzeko programaren oinarri didaktikoak	10
2. Metodologia	12
2.1 Laginaren deskripzioa	12
2.2 Informazio jasotzeko trenak	13
2.2.1 Dokumentuen analisisa	14
2.2.2 Elkarrizketa	14
3. Emaitzak	15
3.1 Elkarrizketa	15
4. Ondorioak	18
5. Erreferentzia bibliografikoak	21
6. Eranskinak	24

MAISU MAISTREN FORMAKUNTZA GENERO BERDINTASUNEAN

Irati Diaz Alonso

UPV/EHU

Lan honen bidez ikertu nahi izan duguna da, maisu maistren formakuntza genero berdintasunean behar beste lantzen den ala ez, eta hauek jasotzen duten formakuntza errealitateko premiak asetzeko aproposa den. Horretarako, ikasleen eta irakasleen curriculumak aztertu ditugu, egin beharrekoak zeintzuk diren zehaztuz. UPV/EHUko hainbat irakasle elkarrizketatu ditugu errealitatea aztertzeko. Behin emaitzak jasota, ateratako ondorio nagusia izan da genero berdintasuna irakasleen formakuntza ez dela behar beste lantzen. Gainera, maisu maistren irakasleen jardun praktiketan gai hau gehiago landu beharraren premia dagoela eta honen inguruko formakuntza falta dagoela antzeman dugu.

Irakasleen formakuntza, genero berdintasuna, sentsibilitatea, hausnarketa, proposamenak.

El objetivo de este trabajo ha sido investigar si en la formación del profesorado se trabaja la igualdad de género tanto como se debería y si la formación recibida es adecuada para poder atender a las necesidades de la realidad. Para eso, se ha analizado el curriculum del profesorado y alumnado concretando las tareas a realizar. Se han entrevistado a diferentes profesoras/res de la UPV/EHU para analizar dicha práctica en la realidad. Una vez obtenidos los resultados, hemos concluido que en la formación del profesorado no se trabaja la igualdad de género como se debería. Además es destacable la falta de formación por parte del profesorado y la necesidad de introducir la igualdad de género en sus prácticas educativas.

Formación del profesorado, igualdad de género, sensibilidad, reflexión, propuestas.

The aim of this project is to find out whether gender equality in teacher training is being analyzed as much as it should be and if this training meets all of the students' expectations and needs. In order for that to be covered, teacher's and students' curriculums have been examined and the tasks to be carried out have been specified. Several teachers of the UPV/EHU have been interviewed to be aware of the extent in which gender equality is introduced in their educational methods. After having a look to the results, we can say that in teacher training no gender equality is worked as it should be. Besides is noteworthy the lack of training by teachers and the need to introduce the gender equality in their educational practice.

Teacher training, gender equality, sensibility, reflection, proposals.

0. Sarrera

Azken lau urte hauetan zehar, unibertsitatean hainbat eta hainbat irakasgai landu ditugu, horiek guztiak etorkizunean irakasle kompetenteak eta trebeak izateko helburuarekin. Baina magisteritzako ikasketak bukatzeaz gaudela, hainbat zalantza burura etorri zaizkigu. Gure prestakuntza alderdi akademikoari dagokionez, aberatsa izan dela aitortzen dugun arren, gure formakuntzaren zenbait ataletan, hutsuneak daudelakoan gaude.

Hezkuntzaren inguruko hausnarketa sakonak egin ostean, gaur egun landu beharreko gaien artean genero berdintasuna dagoela esan daiteke. Gure esperientziatik abiatuta, eskoletan oraindik gehiegi lantzen ez den gai bat da. Hortaz, hori lantzearen beharrezko antzeman dugu; izan ere, genero desberdintasuna egunerokotasunean antzeman dezakegu: testu liburuetan, eskoletako patioetan, hedabideetan, etxeetan eta ikasleen sinesmenetan, baita jarrera zein harremanetan.

Beraz, jakinda ikasleen curriculum ofizialak generoaren berdintasuna bermatzen duela eta horretarako formatuak izan behar garela, etorkizuneko irakasle gisa izango garen antzera, genero berdintasunaren inguruan jasotako formakuntza zein izan den zehaztuko dugu. Behin hori esanda, GRAL honetan, Bilboko Magisteritza Eskolako formakuntzan inplikaturik dauden hainbat irakasle elkarrizketatu ditugu, gizon eta emakumeen berdintasuna nola bermatzen eta zein neurritan lantzen den aztertuz eta zehaztuz. Halaber, gai honi buruzko hausnarketak egitera bultzatzen duten eta arauetan zehazten dena errealitatez eraman den ala ez ere aztertuko dugu. Bide batez, berdintasuna bermatzearekin dagoen prestutasuna agerian utzi da eta formazioaren hobekuntzari zer nolako proposamenak egin daitezkeen planteatu dugu. Hori da hain zuzen, lan honetan argitu nahi duguna.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera

XXI. mendeko irakasleen helburua curriculum ofizialak zehazten dituen premiak eta gizarteak dituen berezitasunei erantzutea da; izan ere, Mariam Bilbatuaren (2012) esanetan, irakasleek izugarrizko aniztasuna aurkituko dute ikasgeletan, aniztasun soziala, kulturala, etnikoa... Beraz, premia hori asetu nahian, maisu maistren formakuntzak, dekretu horretan biltzen dena lantzeko gaitasuna lortzea izango da. Hortaz, LH-ko curriculum ofizialean jasotzen den edozein atal lantzeko gai izango direnez, genero berdintasunari begira ere, beharrezkoa den formakuntza jaso behar dute.

1.1 Ikasleen curriculum azterketa

Hori oinarritzat hartuta ezinbestekoa da Heziberri curriculum dekretuan (2015) genero berdintasunaren printzipioak bermatzen duen gaitasuna zehaztea. Gaitasun honen definizioan aipatzen den bezala, *“Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsoneri aitortuz nor bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari”*. Curriculum dekretu honetan gaitasunen garapenaren barruan hainbat osagai zehazten dira. Hain zuzen, 3.osagaia da genero berdintasuna lantzen duena eta horretan hurrengoa zehazten du: *“Giza eskubideen ondoriozko printzipio etikoak betez jardutea eta elkarbizitzaren oinarritzko gizarte-konbentzioetatik ondorioztatzen diren gizarte-arauak betez jokatzeari”*.

Heziberri (2015) curriculumak osagai honen barruan, giza eskubideen oinarriak errespetatzeari ekiten dio. Honetan bi motatako jokabideak bereizten dira. Batean, giza eskubideetan oinarritutakoak eta bestean, arau sozialetan oinarritutakoak. Biak ezinbestekoak dira bizikidetzarako, baina esleitzen zaien garrantzia eta oinarria desberdina da. Hortaz, 236/2015 dekretuan jasotzen den bezala, bi jokabideak elkarlanean sustatu behar dituzte familiek, gizarteak eta eskolak.

Giza jokabideak eskubideen printzipio etikoetan oinarritutakoak dira, pertsona orok eskubide berberak dituzte, haien sexua, arraza, etnia, jatorria, hizkuntza eta

kultura edozein izanda. Bestalde, giza jokabideak pertsonaren duintasun eta berdintasunean daude oinarrituta. Pertsonak izateagatik Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak zehazten duen bezala: *“gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu behar dute”* (1. artikulua).

Era berean, 236/2015 dekretuan aipatzen diren hainbat eta hainbat artikuluen artean, argi eta garbi zehazten da egunerokotasunean batzuei beste batzuei baino garrantzi handiagoa eskaini behar zaiela. Hain zuzen, *“ Ez da inor bereiziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomia-maila, jaiotza edo beste inolako egoerarengatik”* 2.artikuluan definitzen den bezala, eskolak desberdinak direnen aurkako jokabide diskriminatzaile guztiak baztertzearen alde egin behar du.

Laburbilduz, aipatutako 3.osagai honetan balioak eta jarrerak nabarmentzekoak dira. Alde batetik, berdintasuna, norberak gainerako pertsonak dituzten eskubide zein bete behar berak dituela aitortu behar direlako eta bestetik, justizia eta ekitatea, desberdintasuna eta opresio-baldintza zuzentzeko eta funtsezko balioak defendatzeko konpromisoa hartu behar delako.

Hori esanda, agerian utzi behar da eginkizun honetan irakasleen jarrerak eta jokabideak ezinbesteko papera betetzen dutela genero estereotipoen hausturan eta desagerpenean. Aldaketa hau eskoletara eramateko eta haien hezkuntza praktikak berdintasuna bermatzearen alde egiteko irakasleen inplikazioa, kontzientzia eta formakuntza egokia jasotzea ezinbestekoa da. (Colás eta Jimenez Cortes, 2006)

Askotan esan den bezala, irakasleak ikasleentzako ereduak dira eta erabiltzen duten hizkuntza edota generoarekiko dituzten jarrerak oso ondo aztertu eta kontuan hartu behar dira jokabide estereotipaturik ez izateko.

1.2 Maisu maistren curriculum azterketa

Behin aipatuta eta zehaztuta genero ikuspegiaren lanketari dagokionez ikasleek zer landu behar duten, eta irakasleengandik zer espero den, hurrengo urratsa, irakasleek horren inguruan jasotzen duten formakuntza edo haien formakuntzan premia honi erantzuteko, garatu behar dituzten gaitasunak zehaztea izango da. Horretarako EHU/UPVko irakasleen curriculumaz aztertu dugu, hain zuzen, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako curriculumak. Landu beharreko horiek zeinek diren jakiteko 2011. urtean egindako memorietan jasotzen diren gaitasunei erreparatu diogu.

Konkretuki, LH-ko graduko memorietan (2011: 17-18) agertzen diren gaitasunen artean genero berdintasunaren lanketarekin harreman zuzena duenak hurrengoak dio:

- Aniztasun egoerei erantzungo duten ikaskuntza espazioak diseinatzea eta erregulatzea genero berdintasunari, ekitateari eta errespetuari erantzungo dituztenak, baita ere hiritar formakuntzan osatuko dituzten giza eskubideen errespetua bermatuko dituztenak.¹

Era berean, Haur hezkuntzako graduko memorietan (2011: 17-20) ere gai hau lantzeari dagokion gaitasuna topatu dugu, eta hurrengoak zehazten du:

- Aniztasun indibiduala, soziala eta kulturala onartzea eta errespetatzea. Aniztasun egoerei erantzungo dituzten ikaskuntza espazioak diseinatzea, erregulatzea eta kudeatzea horiek genero berdintasunari, ekitateari, giza eskubideen errespetuari, eta ikasleen hezkuntza beharrezaneiei erantzungo dituztenak.²

¹ Diseñar y regular espacios de aprendizaje en contextos de diversidad y que atiendan a la igualdad de género, a la equidad y al respeto a los derechos humanos que conformen los valores de la formación ciudadana.

² Reconocer y respetar la diversidad individual, social y cultural. Diseñar y regular y gestionar espacios de aprendizaje en contextos de diversidad que atiendan a las singulares necesidades educativas de los estudiantes, a la igualdad de género, a la equidad y al respeto a los derechos humanos.

Hori kontuan hartuta, aipatu beharra dago bi gaitasun horiek espezifikoki landu beharko liratekeela. Hortaz, maisu maistren formakuntzan dauden dokumentu ofizialetan genero berdintasuna lantzeari denbora eskaini behar zaiola zehazten du eta gainera, ez era inplizituan baizik eta esplizituki.

1.3 UPV/EHU-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. eta II. planak

Maisu maistren formakuntzan zehazten diren gaitasun horietaz gain, gai hau landuko dela ziurtatzeko EHU/UPV Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2010-2013) eta II. Planak (2014-2016) ditugu. Hauen helburu nagusia, lege berdintasuna markatzen duen araudiaren eta berdintasun errealaren artean dagoen aldea desagertzea da. Bestetik, Plan bezala, honen xedea nagusia berdintasun erreala lortzea denez, bertan berdintasun printzipioak bermatzearen alde egiten du. Eta hori lotzerko, I. Berdintasun Plan horretan egoeraren diagnostiko bat egin zen nondik abiatu behar ziren jakiteko eta horren ostean, hainbat eginkizun martxan jarri ziren. Horiek burutzerakoan, gai honen inguruko hainbat aurrerapen egin zituzten, hain zuzen, I. Berdintasun Plan horretan jasota daudenak. Bidea luzea denez eta horrek jarraipen bat behar duenez, egin edo garatu gabe geratu diren ekintzei heltzeko eta eskakizun maila handiagoko erronka berriak proposatzeko, UPV/EHUko Berdintasunerako II. Plana (2014-2017) sortu zen.

Behin hori finkatuta, plan honen helburu nagusia, unibertsitate osoko jarduera orotan genero ikuspegi integratua txertatzeaz gain, emakume eta gizonen berdintasun printzipioa benetan bermatzeko eta diskriminazio jarrerak sahiesteko politika aktiboak garatzea da. Berdintasun printzipio horiek integratzeko ezinbestekoa da prozesu bat zehaztea pausuz pausuz gauzatzen joateko. Beraz, hurrengo lerroetan plan horrek bete behar dituen ezaugarriak zehaztuko ditugu ikuspegi orokorra izateko.

Ezaugarriak:

1. Egingarria: Benetan bete ahal izango diren ekintzak planteatzea.

2. Dinamikoa: Ezarritako helburuak oinarri hartuta, proposatutako ekintzen ezarpen maila ebaluatu ahal izateko adierazleen multzoa prestatuko da, jasotako informazioa hobetzeko bideak aurkitzeko.
3. Zeharkakoa: Generoaren ikuspegia jardueren prestaketetan, garapenean eta jarraipenean barneratuta egongo da.
4. Katalizatzailea: Hausnarketarako bideratuta egon behar da eta benetako berdintasuna lortzeko bideratutako kudeaketak eta jardunbideak izateko beharrezko egiturak sortu eta indartu beharko ditu.
5. Integratzailea: Berdintasun handiagoko harremana sortu. “Arau heterosexualak” zalantzan jartzen edo gainditzen dituzten dimorfismoak barne hartuta.
6. Konprometitua: Plana aurrera eramateko unibertsitateko kide eta egitura guztien inplikazioa ezinbestekoa da.

Behin planaren helburuak eta ezaugarriak zeintzuk diren aipatuta, esku hartze esparruaren barruan sailkatzen diren hainbat atalen barnean, guri interesatzen zaiguna deskribatzeari ekingo diogu. Hain zuzen ere, irakaskuntza esparruari dagokiona, hori baita etorkizuneko irakasleen formakuntzan eragina izango duen atala. Hori zein neurritan dagoen integratuta jakiteko, edukiei edota gaitasunei erreparatu diogu. II. Berdintasun Plan honen bidez, eskuratuko dituzten ezagutzen, trebetasuen eta gaitasunen artean, gizon eta emakumeen tratu eta berdintasun aukerak garatzeko egokiak diren edo ez konprobatuko dute. Arestian aipatu bezala, maisu maistren formakuntzaren barnean gaitasun horiek zeharkako zein era esplizituan landu beharko litzateke, beraz, berdintasun planarekin erlazionatuz gero, ikusiko dugu zein neurritan lantzen den eta zein leku daukan errealitatean berdintasunak maisu maistren formakuntzan.

1.3.1 Genero ikuspegiaren txertaketa irakaskuntzan

Aipatutako ildo estrategiko eta jarduketa ardatzak kontuan hartuta, horren barruan genero ikuspegiaren txertaketa irakaskuntzan atala daukagu. Bertan hori sustatzeko ekintzak eta jarraibideak agertzen dira. Berdintasuna bermatzeko irakaskuntzaren arloa lau puntu nagusietan banatzen da, eta horien barruan, hauek lantzeko hainbat ekintza aipatzen dira.

1. Irakaskuntzaren arloaren genero ikuspegi feminista barnera daitezen sustatzea.(Irakaskuntza tradizioko desberdintasunak aztertzeke eta zuzentzeke tresnak eduki)

Atal honetan proposatzen diren ekintzak, bi ataletan banatu ditzakegu. Batetik, genero ikuspegia irakasleen materialetan txertatzea, baita horien ebaluazioetan kontuan hartzea ere. Eta bestetik, UPV/EHUK argitaratutako ikas materialetan hizkuntza erabilera ez-sexista bultzatzeaz gain, hizkuntzaren erabilera ez-sexista hobeto erabiltzeko proposamenak diseinatzea.

2. Emakumeek ezagutza sortzearen alde eginiko ekarpenak erakustea.

4/2005 Euskal Legearen 33.2 artikulua mandatuan oinarrituta, emakumeen jakintza eta gizadiaren garapenerako egindako ekarpen sozial eta historikoa irakaskuntzan barneratu behar dira. Hori lantzeko proposatutako ekintzak hurrengoak dira; Irakaskuntza gaietan beharrezkoak diren datu bibliografikoen sarrera bultzatzea emakumezko egileen presentzia txertatuz.

3. Genero ikuspegia eta ikuspegi feminista irakaskuntzan sartzeko lagungarriak diren ikastaroak diseinatzea eta sustatzea.

Hori lortzeko planteatu diren ekintzak; irakaskuntzan sartzeko lagungarriak diren ikastaroak diseinatzea eta ezartzea, baita aniztasun afektibo-sexualari eta genero identitateari buruzkoak ere. Horretaz gain, irakasleen arteko topaketak eta mintegiak sustatzea, eta Berdintasunerako Zuzendaritza Webgunean gai honen inguruko beharrezkoa den materiala gehitu beharko litzateke.

4. Gradu eta master amaierako lanetan genero ikuspegia sustatzea

Gradu eta master amaierako lanak genero ikuspegia nahiz berdintasun gaiekin lotutako lanak aurkeztea eta horien inguruko jardunaldiak egitea litzakete egin beharreko beste ekintzaren bat. Gero, genero ikuspegia lantzen duten UPV/EHUko lan onenei Francisca de Aculodi (gradu amaierako lanen kasuan) eta María Goyri (master amaierako lanen kasuan) sariak emanaz.

1.4 Maisu maistren formakuntzaren gaineko ikerketa batzuk

Irakasleen ikas-planetako memorietan zehazten diren gaitasunak eta UPV/EHU Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Planean zehazten dena kontuan hartuta, egiten diren ikerketetan frogatu egin da, oraindik ere irakasleen formakuntza generoari begira nahiko ez dela. (Balaños, Jiménez, 2007). Beste batzuek, gai hau era sakonago batean landu behar diren premia antzeman dute (Spender, 1982; Martel, 1999). Ikerketa hauek agerian utzi dute nola irakasleak ez diren kontziente izaten zein nolako eragina izan dezaketen beren sinesmenek genero irakaskuntzan.

Balaños eta Jimenézek (2007: 77-95) egindako ikerketen emaitzak oinarritzat hartuta, genero berdintasuna lantzeko eraren birplanteamenduaren beharra dagoela somatu dute. Izan ere, maisu maistren formakuntza gizarte gertakizun eta gertakizun psikologikoen eraldaketarako prozesutzat hartzen baitute. Vygotskyk (2000) dioen bezala, kulturak pertsonen jarrerak sortzen ditu eta adimenaren funtzionamendua aldatzen du historian zehar. Gizakiek bere jarrerak, beharrianak eta funtzio naturalak transformatzeko dituzte, hauek beste kultura jarrera berriak sortaraziz. Horregatik, ikasleek berdintasun printzipioak bermatu eta barneratzeko, irakaslearen formakuntza berebiziko garrantzia du.

Beharrian hori aurre egiteko, hurrengo lerroetan genero berdintasunaren inguruko formakuntza hobetzeko proposamen bat aztertu eta azalduko dugu.

1.5 Generoan hezitzeko programaren oinarri didaktikoak

Colásek (2004) egiten duen proposamenak defendatzen du jakintza ez sexistak jasaten duen irakaskuntza prozesu bat.

Horretarako egiten duen proposamenaren oinarria, irakasleen formakuntzaren curriculumean genero eta boterearen harremana txertatzea da. Hots, maisu maistrei ulertaraztea nola generoa ez den bakarrik identitatearen sailkapena egiteko erabiltzen den kontzeptua, baizik eta boterea ematen duen sistema. Hortik programaren helburua: boterearen naturaltasuna transformatu eta maskulinitatearekin duen harremana identifikatzeko gai izango diren maisu maistrak hezituko ditu, generoaren barneko esturturen kontzientzia izateko eta

genero desberdintasunen eraldaketa egin ahal izateko. Aipatutako helburu hori lortzeko 3 fasetan banatutako programa diseinatuta dago. (Cólas, 2004:287)

1. Fasea: Genero estereotipoen transmisoreak diren eskuhartze pedagogikoen sentsibilizazio eta ikusarazte fasea.

Fase honen oinarria, genero boterearen erlazioa ulertzen lagunduko duten ezagutza zientifikoak eskuratzea da. Horrela genero botereak duen esanahia ulertuko dute, eta ondorioz, ikaskuntza erak modu kritikoan aztertze aukera emango du.

2. Fasea: Eskuhartze sexisten transformazioa egiteko irakasleentzat bideratutako formakuntza.

Fase honen helburua da, identifikatzea genero- boterearen eta hezkuntza esturturen artean dagoen arazoa, eta aldi berean, irakasleari genero berdintasunari begira dagokion funtzioa birdefinitzea.

3. Fasea: Genero berdintasunean oinarritutako hezkuntza praktika egokien hedapena eta dimentsioa.

Prozesu hau jarraituz gero etorkizuneko maisu maistrak 3 fase desberdinetatik igaro egingo dira. Lehengo fasea gauzatu, genero eta boterearen harremana ulertu egingo dute. Bigarren fasea gauzatu ostean, genero desberdintasuna adierazten dituzten egoerak antzemateko eta identifikatzeko gai izango dira. Eta azken fasera ailegatzean, haien hezkuntza praktiketan txertatu ahal izango dute ikasitako guzti hori eta modu kontziente batean adierazi ahal izango dute genero berdintasuna bermatzen ez dituzten jarduerak, jokaerak edota pentsamenduak.

Laburbilduz, oinarri didaktiko honen xedea ekintza-ikerkuntza prozesuez baliatzea da, egunerokotasunean genero boterearekin erlazionatuta dauden ekintzak identifikatzeko eta genero berdintasunean oinarrituta dauden hezkuntza praktikak bultzatzeko eta gauzatzeko.

2. Metodologia

Edozein ikerkuntza lana aurrera eramateko ezinbesteko tresna metodologia dugu; Izan ere, planteatzen dugun arazoa edo kezka aurrean errealitateak berez ez digu erantzungo, eta erantzun horiek nola bilatu behar diren jakitea ezinbestekoa da. Horri aurre egiteko laguntzen, gidatzen eta errazten duena metodologia da. Bera baita ikerketaren izaera eta norabidea definituko duena.

Lan hau aurrera eramateko, erabilitako metodologia mota kualitatiboa izango da. Horretarako Miguélez-ek (2006) bereizten dituen metodologia paradigma desberdinak kontuan hartuz, paradigma interpretatzailean kokatuko dugu. Izan ere, irakasleen formakuntza generoaren aldetik, Bilboko Magisteritza Eskolako hainbat irakasleek, horren inguruan zer jarrera eta iritzi daukaten aztertu eta jaso nahi dugu. Honen bidez, ikerketaren parte hartzaileek gai honen inguruko bizipenak, jardun praktikak, iritziak, sentimenduak, emozioak edota kontraesanak adierazi ditzakete. Horrela, egingo dugun interpretazio analisiari aberastasuna emanez (Larrinaga, Usategi, Amurrio eta del Valle, 2011). Hortaz, paradigma honen bidez, errealitatean oinarritutako datu kualitatiboak jasoko dira.

2.1 Laginaren deskripzioa.

Burutu beharreko ikerketa lana Bilboko Magisteritza Eskolako irakasle konkretu batzuekin eramango da aurrera. Hain zuzen, UPV/EHUko berdintasun batzordeko kide eta aldi berean irakasleekin eta LHko eta HHko ikasketen koordinatzaileekin. Bilboko Magisteritza Eskolako irakasle hauek aukeratu ditugu, hain zuzen ere, gai honetan inplikaturik daudelako. Eta irakasgai desberdinak lantzen dituztenez, adar ezberdinetan genero berdintasuna nola lantzen den aztertu dezakegu eta horrek gure lanari aberastasuna emango diolakoan gaude.

LHko eta HHko irakasleen curriculumak aztertu eta gero, elkarrizketatzeko aukeratu ditugunak dira LHko eta HHko kordinatzaileak. Horrela, uste dugu bi graduetan genero berdintasuna bermatzeari dagoen ikuspegi orokorra eman ahal digutela. Izan ere, irakasle hauek gradu osoan dauden moduluak koordinatzen dituztenak dira.

Bestalde, Berdintasun Batzordeko hainbat kide elkarrizketatuko ditugu gai honen inguruan duten ikuspegia jasotzeko. Era berean euren irakasgaietan genero berdintasuna nola txertatzen duten aztertzea ere nahi dugu. Horren ostean, koordinatzaileek egiten dituzten jardun praktikak, ematen dituzten iritziak eta planteatzen dituzten proposamenak alderatu ahal izateko. Berdintasun Batzordeko kideak Matematikak eta bere Didaktika II, Gizarte Zientziak eta bere Didaktika, IKTak eta Hizkuntzen Elkarrekintza. Ikusentzunezko Kultura. Azterketa Genero Ikuspegitik irakasgaiak lantzen dituzte.

2.2 Informazio jasotzeko trenak

Informazio jasotzeko tresnak	Informazio tresnen erabilpena
<u>Dokumentuen analisisia</u>	LHko eta HHko curriculumak, UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I eta II. Planak eta maisu maistren formakuntza ikertzen dituzten hainbat artikulu (<u>I.eranskinean</u> eskuragarri)
<u>Elkarrizketa</u>	LH eta HHko korrdinatzaileei eta Berdintasun batzordeko hainbat Irakasleei.

Atal honetan zehaztu egingo dugu zer nolako tresnak erabili ditugun informazioa jasotzeko. Horretaz gain, dokumentuen analisisian zein dokumentu aztertu ditugun eta horien aukeraketaren justifikapenaren azalpena agertuko da. Azkenik, gure elkarrizketa nola planteatu dugun, zein helbururekin eta nortzuk eta zergatik izango diren horiek elkarrizketatuak ere zehaztuko dugu.

2.2.1 Dokumentuen analisia

Gure ikerketa LH zein HHko etorkizuneko maisu maistrek genero berdintasunean jasotzen duten formakuntzaren ingurukoa denez, ezinbestekoa izan da hauen formakuntzan oinarritutako curriculumaz aztertzea. Hori oinarritzat hartu dugu, batetik argitzeko badagoela gai hau esplizitatuta curriculumean eta bestetik, irakasleei galdetzeko horren inguruan ea zein neurritan lantzen den curriculumean zehazten den hori. Gero, UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonezkoen Berdintasun II. Plana aztertu dugu, irakaskuntzaren esparruan bere zereginak zeintzuk izan beharko lirartekeen argitzeko helburuarekin. Azkenik, gure hipotesia baieztatzen duten hainbat artikulu irakurri ditugu, irakasleen formakuntza hobetzeko agertzen diren planteamenduak zeintzuk izan daitezkeen jaso, horrela horren inguruko galderak egin ahal izateko, beti ere elkarrizketatuaren prestutasunaren arabera. I. erasnkinean eskuragarri izango dituzue elkarrizketa prestatzeko ere irakurritako artikuluak.

2.2.2 Elkarrizketa

Gure ikerketaren muina elkarrizketa izan da. Lehenik eta behin, LHko eta HHko koordinatzaileekin batu gara ea gaiaren inguruko sentsibilizazioa zen den jakiteko eta horren ikuspegi orokorra zen den aztertzeko. Izan ere, landu beharreko gaitasuna izanda irakasgai orotan landu edo behintzat ikutu beharreko esparrua da. Horren ostean, Berdintasun Batzordeko hainbat irakasle elkarrizketatu ditugu. Aurretik aipatu bezala, horrelako gaiak lantzeko ezinbestekoa da sentsibilizazioa izatea eta hauen kasuan ikuspegia desberdina izango da. Behin hori zehaztuta, elkarrizketa 3 esparrutan banatuko da:

- Esparru instituzionala: dokumentu ofizialei buruzko galderak
- Esparru didaktikoa: irakasleen formakuntzaren inguruko galderak eta programazioen zein hezkuntza praktiken inguruko galderak
- Iritzi pertsonalen esparrua: orokorrean genero gaiaren inguruko hausnarketak jasoko dira

Irakasleei egindako elkarrizketak grabatu egin ditugu, hauek esaten dutena ondo analizatu ahal izateko eta jasotako informazio esanguratsuen adierazteko. Horren ostean, burutzen dena errealitateko premiak asetzen dituen ala ez aztertu ahal izateko.

3. Emaitzak

Atal honetan elkarrizketetatik ateratako emaitzak islatu izan dira. Orokorrean elkarrizketa guztietatik ateratako informazio adierazgarriena aipatuko dugu atal honetan. Ez dugu hona ekarriko elkarrizketa hitzez hitz, baina jaso nahi ditugu aipatu diren aspektu nagusiak edo garrantzizkoenak. Galdeketa bera II.eranskinean dago eskuragarri.

3.1 Elkarrizketa

Lehenik eta behin gustatuko litzaiyuke zehaztea elkarrizketa hau eginez, genero berdintasuna zehar lerroan nola lantzen den aztertzea izan da gure helburuetako bat, baita aintzat hartuz berdintasun planean agertzen diren ekintzak errealitatean gauzaten diren ala ez. Aurretik esan dugun moduan, LHko eta HHko koordinatzaileak elkarrizketatu ditugu. Horretaz gain, gai honen inguruko beste ikuspegi bat izateko, Berdintasun Batzordeko kide batzuk ere elkarrizketatu ditugu. Horren helburua bien diskurtsoa, jardun praktikak, sentsibilitatea eta berdintasunarekiko konpromisoa bat datorren ala ez aztertzea eta konprobatzea izan da.

Elkarrizketa hiru esparru ezberdinetan banatu dugu eta horietan guztietan lortutako emaitzak atalaren arabera desberdinak izan dira. Lehenengo esparruari dagokionez, hots, esparru instituzionala, esan beharra dago bai koordinatzaileak bai batzordeko kideak emandako erantzunak nahiko orekatuak edota antzekoak izan direla. Izan ere, geletan erabiltzeko Berdintasun Planak daudela aipatu behar dutenean, klaseak ematerakoan zein programatzerakoan genero ikuspegia kontuan hartzen dutela diote.

Era berean, EHU/UPVko Berdintasun Planari buruz hitz egin dugunean, guztiak plana existitu egiten dela badakitela onartu dute, baina horietako batzuk ez dute oso argi zer zehazten duen, eta hori kontuan hartu beharreko aspektua delakoan gaude. Gai honen inguruan jaso duten formakuntzaren inguruan galdetu dugunean aipatu behar da, alde handia dagoela koordinatzaile eta Berdintasun Batzordeko kideen artean. Jasotako informazioaren arabera, orokorrean sentsibilitate gehiago duten irakasleek informazioa, formakuntza eta jardunaldietara joateko grina desberdina agertzen dute.

Esparru didaktikoari dogokionez, Berdintasun planean agertzen diren ekintzak burutzen dituzten ala ez galdetu diegunean eta programaketetan genero ikuspegia kontuan hartzen duten ala ez galdetu genuenean, guztiek bat datoz baietz esanez. Berdintasun planean agertzen diren ekintzen artean, irakasleek emakumeen eta gizonen bibliografia modu orekatuan aipatzeko beharrezana agertzen dute eta honen kasuan irakasle guztiek hori burutzen dutela aitortu dute, behintzat ahal duten neurrian. Gainera, esan dute guztiek garrantzi handia ematen diotela (batzuek beste batzuek baino gehiago) hizkuntza ez-sexista erabiltzeari, zehaztuz hori nahiko barneratuta dagoela. Irakasleek euren lanak idazterakoan erabiltzen duten hizkera ez-sexista eta inklusiboa izatera bultzatzen dituzten arren, joera hori, hau da, hizkuntzaren erabilera egokia ebaluazio irizpidetzat hartzen duten irakasleak batzordeko kideak dira.

Hezkidetzak zertan datzan eta zeintzuk diren horren helburuak ea azaltzen duten galdetu egin genuenean, orokorrean ez dela lantzen azaldu zuten. Genero ikuspegia lantzen duen irakasleak izan ezik, gainerakoek zehaztu dute beste irakasgaietan landuta dagoenez, ez dutela zertan berriro errepikatu behar.

Horrez gain, irakasleek klaseetan ikasleak genero berdintasunaren inguruko hausnarketak eta eztabaidak egitera bultzatzen dituzten ala ez galdetu genuenean, aho batezko erantzuna eman zuten, guztien erantzuna baiezkoa izan baitzen.

Gehienek komentatu zuten, Bilboko Magisteritza Eskolako irakasleen zein ikasleen ehuneko handiena emakumeak direnez, gai honen inguruko hausnarketarako gaitasuna eta sentsibilizazio handia dagoela antzeman dutela eta badakitela orokorrean nahiko ondo desberdintzen zeintzuk diren berdintasuna bermatzen duten egoerak/jolakabideak eta zeintzuk ez.

Azkenik, iritzi pertsonalari dagokion esparrua dugu. Atal honetan bai nabaritzen da gizabanakoek egoerarekiko duten pertzepzioa eta gaiarekiko duten sentsibilitateak paper garrantzitsua jokatzen duela. Hortaz, irakasleek berdintasuna bermatzearen aldeko konpromisoaren arabera, mota bateko edo besteko erantzunak eman dituzte.

Lehengo galdera irakasle bezala ea genero berdintasuna zein Berdintasun Planean agertzen dena betetzearekin konprometituak dauden ala ez izan zen. Irakasle ororen erantzuna erabatekoa izan zen, baietz esanez. Aldiz, Magisteritza Eskola bezala berdintasuna bermatzearekin konprometituak dauden galdetu genuenean, erantzunak oso desberdinak izan ziren. Alde batetik, berdintasun batzordekoek ezetz esan zuten, azpimarratuz konpromiso falta dagoela. Bestetik, bai LHko bai HHko koordinatzaileek baietz esan zuten, behintzat hori egiten saiatzen direla.

Egindako beste hainbat galderen artean, genero berdintasuna gehiago landu beharreko esparrua den ala ez izan zen. Honen kasuan guztiak bat zetozen esanez gehiago landu beharreko esparrua dela eta are gehiago, ez bakarrik era inplizituan, baizik eta era esplizituan ere landu beharrekoa dela. Guztiak ados zeuden, irakasgai bakoitzean genero berdintasuna bermatzeari dagokion gaia edo atala egon beharko litzatekeela, argudiatuz, era esplizituan landuz gero era inplizituan inkontzieteki landuko zutela. Kasu honetan horietako batek, LHko koordinatzaileak hain zuzen, esan zuen ez zekiela gehiago landu beharreko esparrua den ala ez, baina behintzat normaltasunez hartu beharreko gaia badela.

Ikasleek etorkizunean gai honen inguruko ia formakuntza falta izango zuten komentatu genuenean, elkarrizketatu guztiak ere bat zetozen, baina ikuspuntu desberdinak komentatu zituzten.

Alde batetik, Berdintasun Batzordeko kideak bat zetozen formakuntza falta izugarria dagoela esaterakoan. Izan ere, egungo ikasleak berdintasunean ezagutza maila batean gaudela uste dute irakasle horiek eta euren aburuz, hortik gorako ezagutza maila ezin da lortu. Baina ikasleak ez direla konturatzen berdintasun hori faltsua dela, eta haien inkontzientetan barneratuta ditzuzten rolak direla desberdintasunaren oinarrian daudenak, eta askotan ikasleek konturatu gabe desberdintasun jarrera horiek errepikatzen dituztela. Hori dela eta, genero berdintasuna era esplizituan landu beharraren premia, inkontzienteki errepikatzen diren portaera horietaz jabetzeko eta berdintasuna bermatzen dituztenak gauzatzeko.

Honen ildotik LHko koordinatzaileak azaldu zuen, formakuntza falta dagoela batez ere ikuspegi historikotik. Izan ere, genero berdintasuna mendebaldeko kontua dela jakinik, ikasleek pentsatzen dute haiek bizitzen duten berdintasun egoera mundu osoan ematen dena izango dela edo izan beharko litzatekeela eta errealitatea ez da hori. Beraz, hori behar den bezala baloratzeko eta horretaz hausnartzeko ikuspegi historikoa lantzea ezinbestekoa dela dio.

Atalarekin amaitzeko, galdetu genuen haiek jasotako formakuntza eta orain jasotzen den formakuntzaren artean aurrerapenik antzeman duten, denak, aho batez baietz esan zuten. Aipatu zuten lehen berdintasunarekin zerikusia duten gaiak ez zirela klaseetan ezta aipatzen ere egiten. Dena dela, aitortu dute aurrerapenak egin direla, baina oraindik aldaketa gehiago egin behar dituztela bidea luzea baita. Behintzat, elkarrizketatu batek azpimarratu zuen, gauzatzen ari diren aldaketa txiki horiekin jarraitu behar direla, etorkizunean pixkanaka-pixkanaka aldaketa txiki horiek bere fruituak emango dituztelako.

4. Ondorioak

Lan honetan argitu ahal izan dugu, EHU/UPVko Bilboko Magisteritza Eskolak genero berdintasuna era batera edo bestera bermatzeari arreta eskaintzen diola. Izan ere, irakasleen curriculumean zehazten den bezala, hainbat gaitasun daude hori lantzeko bideratuta daudenak. Horrez gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II.Planean (2014-2017) ere zehaztu egiten dira hainbat eta hainbat eginkizun.

Jakina denez, zehazten diren arauen edo eginkizunen eta errealitatean burutzen diren ekintzen artean aldea handia dago teoriatik praktikara salto handia izaten baita. Beraz, egindako ikerketan ondorioztatu dezakegu, generoaren berdintasuna bermatzea (edo ez) irakasleen ardura izaten dela. Gehienetan zeharkako gaitasuna izanda, askok ez dute betetzen behar den bezala, eta nahiz eta era esplizituan landu behar den gaitasuna izan, irakasle askok ez dute hori betetzen. Hori dela eta, esparru hau irakasleek berdintasuna bermatzearekin duten sentsibilitate eta konpromisoaren menpe geratzen dela ondorioztatu dugu. Hortaz, irakaslearen erantzunkizunaren arabera gai hau gehiago edo gutxiago landuko da.

Gure emaitzetan islatzen den bezala, Bilboko Magisteritza Eskolako irakasleek euren programazioetan kontuan hartzen dute genero ikuspegia, hizkuntza inklusiboa ere une oro erabiltzen saiatzen dira. Hau oso garrantzitsua da, izan ere, inkontzienteki ikasleek horrelako ohiturak era natural batean barneratzen laguntzen die eta hori aurrera pausutzat har daiteke.

Hala ere, hizkuntza inklusiboa erabiltzen saiatu arren, askok aitortu egin dute batzuetan ahaleginak egin behar dituztela inkontzienteki barneratuta dituzten rolak, pentsamenduak eta erabiltzen duten hizkuntza ez sexista ageritzeko. Hizkuntzaren erabilerarekin jarraituz esan beharra dago, gaztelaniazko eta euskarako irakasgaietan hizkuntzaren erabileraren zorrotasuna desberdina dela, hizkuntza sexista askoz ageriago dela gaztelaniaren kasuan. Aipatutako bi gabezi horiek direla eta, horren erabilerarekin kontuz ibili behar dira, kontzientzia hori sortzeko eta horren erabilera egokia bultzatzeko formakuntza ezinbestekoa delakoan gaude. Baina formakuntza ez bakarrik hizkuntzaren erabilerari dagokionez, jardun praktiketan genero berdintasuneko gaia normaltasunez nola txertatu daitekeen ere ikasi beharko lukete.

Horrez gain, irakasleek ikasleekin lantzen duten materialari dagokionez, azterketa genero ikuspegitik eta gizarte zientziak eta bere didaktika irakasgaietan izan ezik, gainerakoek soilik adibideak jarri lantzen dute. Beraz, horretan ere hutsunea dagoela esan daiteke; izan ere, adibideak jarri ezean, ez litzateke

zeharkakotasun horren bidez landuko eta beste aldetik, espezifikoki landu beharreko gaitasun hori lantzen ez dela ondoriozta dezakegu.

Hortaz, elkarrizketatutako irakasleak, ados egon dira berdintasuna era esplizituan landu beharreko gaia dela. Hau da, edozein irakasgaitan gai hori lantzeko esparru konkretu bat egon beharko litzatekeela aitortu dute. Proposamen horrekin guztiz bat gatoz, izan ere, Berdintasun Batzordeko kide batek aipatu zuen bezala, duela urte batzuk gai hau lantzeko, minor guztietan irakasgai konkretu bat sartzea proposatu zen. Baina azkenean hori lortu ez zenez, agian aparteko irakasgai batean ez litzateke landu beharko. Hala ere, irakasgai bakoitzean bere lekua izatea ezinbestekoa dela jakinarazi digute.

Argi dago bidea ez dela erraza eta trabak aurki ditzaketeela, baina hauei aurre egiten ikasi behar dute. Irakasleak diren neurrian hori lantzearen erantzunkizuna dute, hain zuzen 236/2015 Dekretuko 30. Artikuluan adierazten den moduan, *“Irakasle orok prestakuntza jarraitua izan behar dute, beraien lanari buruzko gogoeta eginez”*. Gainera, hezkuntza eskumenak dituen sailak, *“irakasleei prestakuntza eman behar die; hezkidetza, aniztasun afektibo-sexuala eta hezkuntza-babes bereziak behar dituzten kolektiboentzako arreta egokia sustatzeko hezkuntza inklusiboa garatzen.”*

Hori aintzat hartuta, errealitateak dituen premiak asetu behar dituzte eta gai honen inguruan behar beste jakingo duten irakasleak formatu behar dituztenez, EHU/UPV-ko irakasleek gai honen inguruko ikastaroak, formakuntza edo dena delakoa jaso beharraren premia antzeman dugu. Horrela eginez gero, etorkizuneko maistrak eta maisuek gabezia horiek ez lituzkete izango eta eskoletan genero berdintasuna era batean edo bestean landuko dela ziurtatuko genuke.

Ezinbestekoa da aipatzea gai honetaz hitz egiten dugunean, irakasleek edota unibertsitate osoak gai honekiko duen konpromisoa edota sentsibilizazioa paper garrantzitsu bat jokutzen duela. Gai honekiko sentsibilizazioa izan ezean, ez da landuko edota jorratuko den beste gai bat baino ez da izango. Hori dela eta, lortutako emaitzak ikusita eta elkarrizketa guztietan ikusitako prestutasunaren arabera, agerian geratu da batzuk ari direla benetan berdintasuna bermatzearen

alde eta beste batzuek eginkizun bat gehiago izango balitz bezala hartzen dutela, hots, genero berdintasuna bermatzeari hainbeste garrantzia ematen ez diotelako. Gai honekiko edozein aurrera pausu egiteko pertsona ororen, kasu honetan irakasle ikasle eta administratzaile guztien laguntza ezinbestekoa da, guztiok kausaren alde egiteko. Bakoitzak bere bidea era isolatuan eraikitzen badu, azkenean ez da jarraipena emango, eta berdintasuna bermatzearekiko konpromisoa dutenek egindakoaren eraginkortasuna galdu egingo da.

Ezinbestekoa iruditu zaigu lan honen helburua gogora ekartzea, hain zuzen, maisu maistren formakuntza genero berdintasunean behar beste lantzen den ala ez aztertzea izan dela. Lan osoa burutu ostean, horren erantzuna ezezkoa dela esan daiteke. Izan ere, irakasle orok gehiago landu beharraren premia dagoela aitortu dute.

Beraz, nahiz eta aurrerapenak egin gai honi dagokionez, oraindik aurrera pausuak ematen jarraitu behar direla deritzogu. Ikasleak gai honen inguruko hausnarketak, eztabaidak egitera bultzatu behar dira. Honen inguruko adibideak azaldu baino haratago joaten saiatu behar gara. Arestian aipatu bezala, formatzen ari diren maisu maistrek sortutako edozein hezkuntza praktketan, azalpenetan edota diskurtsoetan genero berdintasuna bermatuko dutela ziurtatuz. Hori baita etorkizuneko irakasleak berdintasuna bermatuko dutela ziurtatuko duen bide bakarra.

5. Erreferentzia bibliografikoak

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola. (2011) *Memoria justificativa propuesta de titulación Grado de Educación Primaria*, 17-20orr. Bizkaia.

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola. (2011) *Memoria para la solicitud de autorización de Grado en Educación Infantil*, 17-18orr. Bizkaia.

Bolaños, L.M. eta Jiménez, R. (2007) La formación del profesorado en género. *Revista de investigación educativa*, 25 (1), 77-95orr.

Colás, P (2004): *La construcción de una Pedagogía de género para la igualdad. En Mujer y Desarrollo en el siglo XXI*, Rebollo M.A. eta Mercado I. Mc Graw Hill, Madril.

Colás, P. eta Jiménez, R. (2006) Tipo de género del profesorado en los contextos escolares. *Revista de Educación*, zenb.340, 415-444orr. Universidad de Sevilla.

Garcia, M. (2012) *Irakasle gogoetatsuen premia (Mariam Bilbatuari egindako elkarrizketa)*. 2016ko apirilaren 28an berreskuratua, <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2342/irakasleen-prestakuntza>.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Ikerketa Saila. (2015) *Oinarrizko Hezkuntza Curriculum*. Euskal Autonomia Erkidegoan. ISEI- IVEI. 78-81 orr. 2016ko apirilaren 28an berreskuratua http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=eeebae18-4d00-4cee-8e79-2f9ffd615fd4&groupId=635622

Larrinaga, A., Usategi, E., Amurrio, M., eta Del Valle, A. (2011). Bigarren unibertsitateko hezkuntzako ikasleen genero estereotipoak: eskolari eta bestelako sozializazio guneei begirada. *Euskal Herriko Unibertsitate: Soziologia Saila. Gizarte eta komunikazio Zientzien Fakultatea*, 23, 7-28orr.

Martel, A. (1999). Intervenciones educativas en favor de niñas y mujeres brillantes. En J. Ellis eta J. Willinsky (Ed.). *Niñas, mujeres y superdotación. Un desafío a la discriminación educativa de las mujeres* (79-97orr.) Madril: Narcea.

Martinez, M. (2006). Validez y confiabilidad en la metodología cualitativa. *Paradigma*, 23, 7-33orr.

Ruiz Olabuenaga. (2010). Hizkuntzak aztergai: ikerketa-metodoetara oinarrizko hurbilpena. *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. 2016ko apirilaren 25ean berreskuratua, <http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee152152/136266> orrialdetik.

Spender, D. (1932). *Invisible women: the Schooling Scandal*. London: Writers and Readers Publishing Cooperative.

UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza eta Ikasleen Empleguaren eta Gizarte Erantzunkizunaren Arloko Errektoreordetza. (2014) *UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II.Plana*. 2016ko maitzaren 5ean berreskuratua, <http://www.ehu.eus/documents/2007376/2883220/UPV-EHUko-Emakumeen-eta-gizonen-berdintasunerako-II-Plana.pdf>

UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza eta Ikasleen Empleguaren eta Gizarte Erantzunkizunaren Arloko Errektoreordetza. (2015) *UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II.Plana (2014-2017) gauzatzeko aurrerapausuak*. 2016ko maitzaren 5ean berreskuratua <http://www.ehu.eus/documents/2007376/2883220/II-Plana-eta-betearazpen-egoera-2015eko-ekaina.pdf>

UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza. (2013) *UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I.Plana (2010-2013)*. 2016ko maitzaren 5ean berreskuratua http://www.ehu.eus/documents/2007376/2105779/Berdintasun_plana

Vygotski, L. (2000): *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores*. Primera edición en Biblioteca de Bolsillo, Bartzelona.

6. Eranskinak

I. Eranskina: Elkarrizketa egiteko irakurritako artikuluen interesgarriak.

Bejarano, M. eta Mateos, A. (2014). Género y Sexualidad en la formación inicial de maestros y maestras. ¿Por qué no un currículum sexual?. *Revista científica ESEC*, 128-146orr.

Granado, C. (2013). La formación inicial de maestros y maestras en educación lectora: perspectiva del alumnado y contenidos ofrecidos en tres universidades andaluzas. *Investigación en la escuela*, 103-116orr.

Rebollo, M. A., García-Pérez, R., Pierda, J. eta Vega, L. (2011). Diagnostico de la cultura de género en educación hacia la igualdad. *Revista de Educación*, 521-546orr.

Rebollo, M. A., Vega, L. eta García-Pérez, R. (2011). El profesorado en la aplicación de planes de igualdad: conflictos y discursos en el cambio educativo. *Revista de Investigación Educativa*, 29(2), 311-323orr.

II. Eranskina: Elkarrizketa txantiloia

ESPARRU INSTITUZIONALA:

1. Berdintasun plana klaseetan lantzen duzu edo behintzat aipatzen duzu?
2. Genero berdintasuneko ikuspegia klaseak ematerakoan kontuan hartzen duzu?
3. Ikasleek haien lanetan edota zure irakasgaien edukietan berdintasun baloreak bermatzen dituzu?
4. Curriculum lantzerakoan berdintasunaren atalari denbora eskaintzen diozue edo behintzat horri buruz hitz egiten duzu?
5. Klaustroetan eta programazioak egiten dituzuenean genero berdintasuna gaia tratatzen duzu?
6. Gai honi buruzko formakuntza saiorik edo sentsibilizazio ikastarorik jaso duzu?
7. Horren inguruko informazioa ikasleei ematen diozu?

ESPARRU DIDAKTIKOA:

1. Programaketetan kontuan hartzen da genero ikuspegia?
2. Lana egiterakoan ebaluatzerakoan genero berdintasuna kontuan hartzen den esparrua da?
3. Ikasleek gai honen inguruko hausnarketak edota eztabaidak egitera bultzatzen dituzu?
4. Klaseetan hizkuntza inklusiboa erabiltzen da une oro?
5. Hezkidetzaz zer den zertan datza eta zer den horren helburua landu egiten duzu?

IRITZI PERTSONALA:

1. Berdintasun planari dagokionez orokorrean konpromisoa dagoela ikusten duzu? Ala bakarrik dago legeak dionari erantzuteko?
1. Berdintasuna bermatzen duzu irakasle moduan? Eta Magisteritza eskola bezala uste duzu gehiago landu beharreko esparrua dela genero berdintasuna?

2. Hizkuntza inklusiboa erabiltzea bermatzen duzu eta horren garrantzia azpimarratzen duzu?
3. Zuk jasotako formakuntza gaur egun jasotzen dugun formakuntzarekin alderatzen badugu gai honen inguruan aurrerapenik ikusten dituzu?
4. Ikasleen jarrera nola ikusten duzu gai honen inguruan?
5. Nabaritzen duzu ikasleengan formakuntza falta dagoela generoaren ikuspegitik?
6. Gai hau lantzeko era inplizituan lantzea uste duzu era egokiena dela?
7. Uste duzu aparteko gai batean edo irakasgai batean landu beharko litzatekeela generoa?